

GABON

hauetan, inoiz baino hurbilago

Dohaintzak, zure Elizbarrutiko
Caritasen edo caritas.es-en

KEINU BAKOITZAK DU ZERESANA



Gabon hauetan, inoiz baino hurbilago

Gabon hauetan, distantziak distantzia, gure familiakoengandik eta lagunengandik gertu egon nahi dugu, **inoiz baino hurbilago**. Maskarak eta, gure bizitzetatik lehenbailehen desagertzea nahi dugun mundu mailako pandemiaren ondorioak direla-eta, nekea, frustrazioa edo ezintasuna sorrarazten dizkigun nahaste emozionala gorabehera, gertu sentitu nahi ditugu.

Halaber, **gertuago** sentitu nahi dugu baliabiderik gabe dauden familia askoren mina, Gabon hauetan mahaian eseriko ez direnen hutsunearen dolua sentituko duten senideena, lanik ez duten eta aukera gutxi dituzten pertsonen mina, edota, konponbiderik ezean, gure uharteetan eta kostaldeetan pilatzen jarraitzen duten migratzaileena.

Gure bihotzaz eta eskuez, Jesus haurtxoaren jaiotzaren bidez irudikatutako bizi-poza eta itxaropena lausotzen dituen min hori **gertuago** sentitu nahi dugu, Gabonak opariak egitea, ospatzea eta elkartzea baino gehiago baitira, gure iritziz. Besteak maitatzea dira, beste pertsonen alde dena ematea, akitu arte.

Kristau-elkarte garen aldetik, beste era bateko Gabonak bizi nahi ditugu, baina ez bizitzen ari garen errealitateak horretara behartzen gaituelako, beste bizi-estilo bat, guztiz desberdina eta iraultzailea, bizitzea erabaki dugulako baizik, jatorria aska batean duen bizi-estiloa.

Esnatu, iristear da-eta!

Izan ere, iristear dira berriro **Gabonak**, gure lozorrotik esnatzeko eta gure baitan bilduta egotetik askatzeko; gure belarriak astintzera eta bihotzak hunkitzera datoz Gabonak, egunerokotasunetik, ohituretatik eta arranguretatik atera gaitezen.

Gabonak gizakion hauskortasuna gogorarazten digute; hain zuzen ere, haurtxo jaioberri bat aska batean, ondasun material orok ematen duen ongizetatik urrun ikusteak uzten du agerian gizakion hauskortasun hori.

Gabonak iristeaz batera liluratu egiten gara boluntarioen eskuzabaltasunean distira egiten duten argiekin, gutako edonork besteak zaintzeko eta haiei laguntzeko egin ditzakegun keinu txikien distirarekin; halaber, lilura sortzen du besteei, inolako presarik gabe, eskaintzen diegun denborak, haiei entzuteko, galdetzeko, begietara begiratzeko, eta egunero jasotzen dugun on guztia aitortzeko eta eskertzeko.

Gabonak iristean zein funtsezkoak garen ohartzen gara berriro; giza familia handi bat gara, hauskortasunez eta ontasunez betea, eta eraldatzeko eta birsortzeko gai gara, Kreazioko gainerako elementuak bezala.

Gabonak garai aproposa dira konbertsiorako, ez gu ez besteak zoriontsu egiten ez gaituen oro aldatzeak eta eraldatzeak dakarren berritasunera egokitzeko. Elkartzeko une bat da, elkarri eskua luzatzeko eta elkartasun nahiz maitasun-zubiak eraikitzeko. Gabonetako ospakizunen, otorduen eta familia nahiz lagun arteko bilkuren artean, indartsu agertzen dira giza duintasunaren euskarri diren balioak. Sinestun izan ala ez, asmo onen eta berritasunen korrante batek bil gaitzan nahi izaten dugu, desio onekin eta mundu hobe batean bizitzeko gogoarekin egiten dugu amets.

Nola egon gaitezke gertuago?

Birus honen hedapena geldiarazteko eta guztiok babesteko -bai besteak bai geure burua-, distantzia fisikoa zaindu behar dugu, baina distantzia fisiko hori, aldi berean, gure afektuak eta emozioak mugatzen ari da. Egunetik egunera, geroz eta neketsuagoa egiten zaigu isolamendua, eta estutasuna, gogorik eza eta gaixotasunetik libre izango garen etorkizun hurbil bat ikusi ezina gailentzen dira gure baitan. Maite ditugun pertsonekin beste urteetan bezala ezin elkartuko garela pentsatze hutsa sinestezina egiten zaigu.

Baina errealitatea onartzea, aurka ez egitea eta inguruko baldintzetara ahalik ondoen eta sormen-gaitasun handienarekin egokitzen ikastea dira, besteak beste, pertsona gisa bizirauten eta eboluzionatzen laguntzen digun giza erresilientziaren ezaugarriak.

Egoerari eutsi diogu, ez dugu etsi, baina Gabon hauetan urrunago joan nahi dugu.

Zenbaitetan, eusteak gelditzera behartzen gaitu, energiari ez galtzeko; itxialdira garamatza geure burua babesteko eta hormaz inguratzeko, garaitu ez gaitzaten.

Baina Gabon hauetan zure mugetatik **ateratzera gonbidatu nahi zaitugu** Caritasetik; urrats bat aurrera egitera eta zure energia positibo guztia eta zure maitatzeko eta emateko gaitasun guztia xahutzera animatu nahi zaitugu, garai berri eta ezberdin bat **argiztatzeko**.

Eguberri hauetan, izan zu zeu **Betleemgo izarra**, ezagutzen dituzun pertsonen nahiz zure egunerokotik urrun egon daitezkeen beste pertsonen bideak argitzen lagunduko duena. Bere argiaz itxaropena zabalduko duen izarra izatera animatu nahi zaitugu, elkartze-uneak, solasaldiak eta aukerak sustatuko dituzten keinu eskuzabalen bitartez.



Gabon hauetan, oparitu zure keinurik onena

Aurten, zure Betleemgo jaiotzak edo Eguberrietako zuhaitzak benetan egin dezake distira, eta indar handiagoz gainera, zu zeu izan baitzaitezke izar hori, baita zure familiakoak eta lagunak ere. Duela bi mila urte baino gehiago, ohikoak baino izar distiratsuago eta handiago batek egin zuen distira zeruan, hura ikusteko gai izan zirenentzat. Izar hartan seinale bat aurkitu zuten, bide bat, munduaren logika oro hautsiko zuen helburu bat.

Eguberri desberdin hauek are hobeak izatea lor dezakegu benetako maitasunez, pozez, pazientziaz, itxaropenez eta konfiantzaz egiten dugun keinu edo ekintza bakoitzarekin. Zure keinurik onena gai izango da sareak ehuntzeko eta gertutasuna adierazteko, eta, horrez gain, besteentzako oparirik onena bihurtuko da.



Partekatu zure ondasunak gutxien dutenekin. Eskuzabaltasunak arima zabaltzen du.



Balioetsi eta ospatu beste era bateko Gabonak, soilagoak eta xumeagoak, eta eman garrantzia benetan axola duenari.



Entzun eta irakurri albisteak begirada luze eta zabalaz, ohartu zaitezzen leku askotako pertsona askok eta askok oso bestelako errealitatea bizi dutela.



Kontsumitu bihotzarekin eta buruarekin. Hau da, kontsumitu arduraz eta zuzen, beste pertsonen ongizatea kontuan hartuta.



Eskerrak eman eta eskaini. Jasotzen eta gozatzen ditugun dohainak aitortzeak besteei eskerrak emateko eta haiekin partekatzeko prestatzen gaitu.



Landu elkartze-uneak eta adiskidetasuna, besteek gertu senti zaitzaten. Solasaldi bat izatea, gutun bat edo Eguberri-txartel bat idaztea, norbaitentzako bizkotxo bat egitea, marrazki bat edo eskulan bat oparitzea... Maitasuna eta gertutasuna adierazteko hamaika modu daude.



Egin beste pertsoneri lagunduko dieten eta haien bizitza hobetuko duten doako keinuak, bakardadea eta tristura arintzeko balio dutenak, zaintzeko eta lagun egiteko keinuak, besteekin lankidetzan aritzekoak, eta denon bizitzak beteagoak eta zoriontsuagoak izaten lagunduko dutenak.



Hartu tarte bat egunero isilean egoteko, otoitz egiteko, meditatzeko edo hausnartzeko. Praktika horiek ohituratzat hartuz, sentsibiltate handiagoa lortuko dugu, eta errealitateari arreta handiagoz erreparatuz biziko gara.



Konektatu naturarekin, eta egin bat harekin; ez ezazu inbaditu, eta ez agertu hura mendean hartzeko gogo edo asmorik. Natura maitatzen ikasteak egunerokoan hura zaintzeko eta babesteko keinu jakin batzuk egitera garamatza.

Bizitza argitzeko izar bat

Gabon hauetan, **adierazi zuk zeuk egingo duzun Betleemgo izar baten bidez gehien behar dutenengandik inoiz baino gertuago egoteko egiten dituzun keinuak**. Zuk nahi bezalakoa egin dezakezu, handia edo txikia, paperezkoa, kartoizkoa edo oihalezkoa... eta nahi duzun lekuan jar dezakezu, etxeko atean, jaiotzan edota zuhaitzean.

Atzean keinu edo ekintza bat idatz dezakezu, garai berezi horretan beteko duzun konpromiso bat. Horrez gain, zure izarra beste norbaiti oparitu diezaiokezu, pertsona horrekin sartzeko. Zure taldean edo elkarteetan, edota Elizako lantaldean, izar bat egin dezakezue, eta konpromiso berri bat hartu parrokiako edo auzoko gainerako kideekin; beste batzuk ere gonbidatu ditzakezue gauza bera egitera.

Gainera, urrunago ere joan zaitezke, eta zure izarra sare sozialetan zabaltu dezakezu.



Zure keinua sarean

Egin zure **Betleemgo izarra**, atera argazkia izarrarekin, eta zintzilikatu Caritaseko zure profilean eta/edo zure sare sozial guztietako profil pertsonalean, hurrengo lerroetan proposatuko dizugun mezuarekin batera. Igo sarera **abenduaren 21etik 25era arteko astean**, Gabon hauek indar handiagoz argiztatzeko.

(XXX) naiz elizbarrutiko Caritaseko kidea /parrokiako Caritaseko kidea, eta, aurten, besteentzat argia izan nahi dut... (idatzi zure keinua, konpromisoa...), Gabon hauetan inoiz baino gertuago egon nahi baitut. #CadaGestoCuenta **#CadaGestoCuenta (Keinu bakoitzak du zeresana)**

Otoitz egiteko eta hausnartzeko

Gabonak bizitzeko, lehenbizi Abendua igaro behar dugu, eta gure artean gertatuko den mirariak jabetu. Norbait jaiotzen den bakoitzean, beharrezkoak diren gauza guztiak prestatu behar izaten dira jaioberriari harrera egiteko. Abenduan, hain zuzen, oso ohikoa da hori, prestaketak egitea eta lorik egin gabe egotea, adi, erne, kontziente eta esna-esna, iristear denari ongietorria egiteko.

Abestia: Jarri zutik. Alégrate albuma, Ain Karem



Jarri zutik, eta altxatu burua.

Begira nor datorren, Gizonaren semea dator Lurrera, zuen etxean bizitzera.

Jarri zutik (*jarri zutik*), eta piztu argia, ez zaitzatela lo hartu eta ez dezala zuen suak su hartu.

Ez egin lo, eta egon adi. Irakurri denboren seinaleak, Jainkoaren erreinuarenak...

Gertu dago.

Jarri zutik, eta altxatu burua.

Begira nor datorren, Gizonaren semea dator Lurrera, zuen etxean bizitzera.

Jarri zutik (*jarri zutik*), eta piztu argia, ez zaitzatela lo hartu eta ez dezala zuen suak su hartu.

Ez egin lo, eta egon adi. Zaindu zuen kandelen sua, gizonaren semeak atea jo du-eta.

Jarri zutik, eta altxatu burua (...).

Irakurgaia: Lukas 1, 30-38

“Aingeruak esan zion: Ez beldurtu, Maria! Jainkoak gogoko zaitu. Haurdun geratuko zara, semea izango duzu eta Jesus ipiniko diozu izena. Handia izango da, Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta bere aita Daviden tronua emango dio Jainko jaunak. Israel herriko errege izango da betiko, eta beraren erregetzak ez du azkenik izango. Mariak esan zion aingeruari: Baina nola gerta daiteke hori, ez baitut gizonik ezagutzen? Aingeruak erantzun zion: Espiritu Santua etorriko da zuregana eta Goi-goikoaren indarrak hodeiak bezala estaliko zaitu; horregatik, zuregandik jaioko dena santua izango da, eta Jainkoaren Seme deituko diote. (...) Orduan, esan zuen Mariak: Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekik zuk esan bezala. Eta aingerua joan egin zen”.

Hausnartzeko:

- Sasoi honetan, zer dohainekin bedeinkatzen zaitu Jainkoak? Eta zure taldean, elkartean eta parrokiako lantaldean? Antzeman eta izendatu al ditzakezue zer dohain eta bedeinkapen dituzuen?
- Zer beldur eta kontrakotasun dituzu Jainkoak gaur ezarri dizun misioari heltzeko?
- Zerk lagundu diezazuke sinesten, konfiantza izaten, eta besteei argia eta itxaropena ematen dien pertsona baten gisa bizitzen?

Frantzisko Aita

Santuaren otoitza Mariari

“Maria, entzuten dakien emakumea, lagundu gure belarriak irekitzen; lagundu mundu honetan entzuten diren milaka hitzen artean zure seme Jesusen Hitza entzuten ikas dezagun; erakutsi bizi dugun errealitatea entzuten, bidean aurkitzen dugun pertsona bakoitzari entzuten, pobreei, behartsuei eta zailtasunak dituztenei, bereziki. Maria, ekintzaren emakumea, mugiarazi bizkor gure eskuak eta oinak besteengana gerturatu gaitzen, haiei zure Seme Jesusen maitasuna eta karitatea eramateko”.

